



DIRU SARRERAK

Gure negozioa martxan jartzeko kooperatiba bat sortuko dugu. Lau bazkide gara eta laurak lan egingo dugu proiektuan. Guztien artean adostu dugu ileapaindegia sortzeko hasierako finantza iturri nagusia gure ekarpenak izango direla. Gure hasierako ekarpenak 50.000€koak izango dira, proportzio berdinetan ordainduko duguna gutako baikoitzak.

Bestetik, beharrezkoa den finantziazio guztia lortzeko mailegu bat eskatuko dugu, zehazki Kutxabank bankutik jaso dugun mailegu eskaintza da aukeratik onena. Argi eta garbi daukagu, mailegu hori ahalik eta lehen itzultzen saiatuko garela, zorpetze hori denbora luzez ez mantentzeko. Maileguaren zenbatekoa 130.000€koa izango da.

Ekintzaileentzat diru laguntzak eskatuko ditugu ere, bai Udaletxean zein Foru Aldundian. Zenbateko hauek jasotzean kamioian egin beharreko hobekuntzak ordaintzeko izango dira.

Merkatu ikerketa egiterakoan, antzeman dugu gure bezeroek 50€ baino gutxiago ordaintzeko prest agertu direla. Hori dela eta, gure prezioak 15€ eta 50€ artean egongo dira. Noski, zerbitzu batzuen ezaugarriengatik tarifak altuagoak izango dira, adibidez: ilea tindatzea garrestia izango da eta 100€ ingurutik egongo da.

Gure kamioia dabilenean, dirua lortzeko opari-saski bat zozkatuko dugu 6 hilabetetan behin gure bezeroen artean, eta zozketa irabazteko tiketa 6€-ko kostua izango du. Honekin ere dirusarrerak lortuko ditugu opari-saskia gurekin lankidetzan ari diren markako produktuez beteta egongo da, eta, beraz, guretzat ez du kostu gehigarririk suposatuko.

Azkenik, guk gutxi gorabehera kalkulatu dugu egunero 15 bezeroei eskeiniko diegula gure zerbitzuak, hortaz astero 105 bezero hartuko ditugu eta bukatzeko, hilabete batean, bezeroen kopurua 450-465 artean egongo da.



